

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Sariz mozorrotutako zerga

ERROMA, III. MENDEA. Hamar gamelu edo hamar euli. Horiexek ziren Helio-gabalo enperadoreak egindako zozketa ospetsuen sariak. Loteriak, hots, gozagarri moduan egindako zozketak, antzinako Erroman sortu ziren. Zotz egiteko modu hark, dena den, ez zuen arrazoi ekonomikorik atzean, agintarien denbora-pasa hutsa zen, eta beste hainbat jardunekin batera Inperioarekin batera ezkutatu zen, mila urteko kuluxka egiteko.

Loteria modernoaren lehen arrastotak XV. mendeko dokumentuetan daude gordeta. Bruggeko (Flandria) artxiboetako 1441eko agiri batek dio bertako loteria aspalidiko ohitura zela, eta *scrooder* zeritzan kargua aukeratzeko zozketan zuela jatorria. *Scrooder*-ak, besteak beste, hirira sartzen zen ardoa garraiatu eta dastatzeko ardura zuen; maila eta ospe handiko kargu desiratua, antza. Hautagaiek ordain-sari bat eman behar zuten. Aurrerago, kargua lortzen ez zutenen galerak nolabait arintzeko ohitura sortu zen: kontsolamendu sariak, gaurko sari txikien arbasoak. Berehala konturatu ziren agintariak zozketak etekin ederrak zekartzala, batetik, eta, bestetik, herritarrengandik dirua lortzeko modu bikaina zela, haien haserre sailhestuta. Ohikoak ziren garai hartan zergen igoerek sortutako ezinegonak eta liskarrak.

Gero eta sari handiagoak ematen hasi ziren. Alemaniarrak XV. mendearen hondarrean hasi ziren zozketak egiten eta, sariei dagokienez, haien parekorik ez zen. Horra benetako sari “potoloa”: hiri bat, 29 herrixka, 10.000 hektarea baso, 1.000 hektarea baratz, jauregi bat eta bi lantegi.

Italiako hiri-estatuetan loteria modukoak sortu ziren XV. mendean, Genoan eta Venezian lehenik. Genoako loteriaren jatorria ere bitxia da: usadio zaharrari jarraituz, hiriko senatuko 90 eserlekuetatik bost zozketaz banatzen ziren. Kutxa batean 90 bolatxo sartu eta markatutako bost bolatxoak



Espainiako loteria zaharrenetakoa da. Argazkian, 1936ko gabonetako zozketa, Valentzia errepublikarrean egina.

ateratzen zituztenek eserlekua eskuratzzen zuten. Hortik abiatuta, Lotto de Genoa izeneko loteria jaio zen.

Italiar penintsula guztian zabaldu zen jokoa XVI. eta XVII. mendeetan, baita Europako hainbat herrialdetara ere, besteak beste Frantziara eta Espainiara. XVIII. eta XIX. mendeetan herritarrek oso gustuko zuten loteria, baina intelektualek jokoaren kontrako korrontea bulztatu zuten. Ondorioz, ia Europa guztian debekatu edo erdi lotsaturik mantendu zuten, arrazoi finantzarioak argudiatuz. Espainian ordea, tinko eutsi zioten jokoiari. 1763an, Eskilatxeko markesak, Karlos III.aren Gerra eta Ogasun idazkari zela, primitiboa deritzan loteria ezarri zuen, Genoako 90 bolatxoaren sisteman oinarrituta –1985ean berreskuratu zuten jokoa–. Gabonetako zozketa 1811n jaio zen eta, esan beharrik ez dago, bizi-bizirik dago oraindik.

Jokatzeo ohitura zabaltzearekin bat, saria eskuratzeko trikimailu eta sineskeriak ere hedatu ziren. Bilbon, esaterako, kanpotik etorritako ohiturari eutsi zioten; San Tadeoren laguntza izateko 60 egunez egin behar zen otoitz. Elorrion, bi isatseko sugandila harrapatu eta kutxa batean sartzen zuten loteria txartelarekin batera. Erronkarin, aldiz, gauza bera egin behar zen, baina sugandilaren ordezkari muskerra sartuz. Eta egun, bi isatseko muskerra harrapatzea baino askoz zailagoa da loteria tokatzea. Baina badaezpada... ■

ARRASTOAK

NEANDERTHALAK ez ziren soilik Europan bizi, orain arte uste zen bezala; Erdialdeko Asiara eta Siberiako hegoaldera ere iritsi ziren. Uzbekistanen orain dela 70.000 urte hil zen 8-10 urteko haur baten DNA analisiak eta Siberian duela 40.000 urte inguru bizi izan zen beste gizaki baten arrastoen azterketak ondorio horretara eraman dituzte adituak. Hauek dira Genoma Neanderthal nazioarteko proiektuak orain arte eman dituen emaitza esanguratsuak. Proiektuak hominido horien kode genetikoak ezagutzea du helburu. Bide horri helduta, neanderthalak zergatik desagertu ziren azaldu nahi dute, zergatik izan zen *homo sapiens* bizirauteko gai izan zen gizaki espezie bakarra. Oraingoan, badakigu desagertu baino lehen gizaki haiek gaur egungo Errusia ia oso-rik konkistatu zutela duela 125.000 urte inguru eta, gaur ez bezala, lurralde horiek oso beroak zirela orduan.



Neanderthal gizakiak Asian eta Siberian ere bizi izan zirela diote aurkitutako azken arrastoek.